

Principios para la protección de los enfermos mentales y el mejoramiento de la atención de la salud mental

Asamblea General, resolución 46/119, de 17 de diciembre de 1991

Aplicación

Los presentes Principios se aplicarán sin discriminación alguna por motivos de discapacidad, raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de otra índole, origen nacional, étnico o social, estado civil o condición social, edad, patrimonio o nacimiento.

Definiciones

En los presentes Principios:

- a) Por «defensor» se entenderá un representante legal u otro representante calificado;
- b) Por «autoridad independiente» se entenderá una autoridad competente e independiente prescrita por la legislación nacional;
- c) Por «atención de la salud mental» se entenderá el análisis y diagnóstico del estado de salud mental de una persona, y el tratamiento, el cuidado y las medidas de rehabilitación aplicadas a una enfermedad mental real o presunta;
- d) Por «institución psiquiátrica» se entenderá todo establecimiento o dependencia de un establecimiento que tenga como función primaria la atención de la salud mental;
- e) Por «profesional de salud mental» se entenderá un médico, un psicólogo clínico, un profesional de enfermería, un trabajador social u otra persona debidamente capacitada y calificada en una especialidad relacionada con la atención de la salud mental;

Buruko gaixotasuna duten gaixoak babesteko eta buruko osasunaren arreta hobetzeko printzipioak

Biltzar Orokorrak onetsiak, 1991ko abenduaren 17ko 46/119 ebazpenean

Aplikazioa

Printzipio hauek aplikatuko dira inolako bereizkeriarik gabe ezgaitasun-, arraza-, kolore-, sexu-, hizkuntza-, erlijio-arrazoiengatik, politikako edo bestelako iritziagatik, jatorri nazionala, etnikoa edo sozialagatik, egoera zibila edo gizarte-baldintza, adina, ondare edo jaiotzagatik.

Definizioak

Printzipio hauetan:

- a) «Defendatzaile» gisa ulertuko da legezko ordezkaria edo beste ordezkari aditua;
- b) «Agintari independente» gisa ulertuko da agintari eskuduna eta independentea, nazio-legeriak izendatua;
- c) «Buruko osasun-arreta» gisa ulertuko da pertsona baten buruko osasunaren egoeraren azterketa eta diagnostikoa, eta buruko gaixotasun egiazko edo ustezkoari aplikatutako tratamendua, zaintza eta birgaikuntza-neurriak.
- d) «Erakunde psikiatriko» gisa ulertzen da buruko osasun-arreta duen establezimendu oro edo establezimenduaren bulego oro, lehen eginkizuna halakoa duena
- e) «Buruko osasunaren profesional» gisa ulertuko da mediko, psikologo klinikoa, erizaintza-profesionala, gizarte-langilea edo beste pertsona bat, behar bezala gaitua eta trebatua dena, buruko osasun-arretarekin zer ikusia duen espezialitate batean.

f) Por «paciente» se entenderá la persona que recibe atención psiquiátrica; se refiere a toda persona que ingresa en una institución psiquiátrica;

g) Por «representante personal» se entenderá la persona a quien la ley confiere el deber de representar los intereses de un paciente en cualquier esfera determinada o de ejercer derechos específicos en nombre del paciente y comprende al padre o tutor legal de un menor a menos que la legislación nacional prescriba otra cosa;

h) Por «órgano de revisión» se entenderá el órgano establecido de conformidad con el principio 17 para que reconsidere la admisión o retención involuntaria de un paciente en una institución psiquiátrica.

Cláusula general de limitación

El ejercicio de los derechos enunciados en los presentes Principios sólo podrá estar sujeto a las limitaciones previstas por la ley que sean necesarias para proteger la salud o la seguridad de la persona de que se trate o de otras personas, o para proteger la seguridad, el orden, la salud o la moral públicos o los derechos y libertades fundamentales de terceros.

Principio 1

Libertades fundamentales y derechos básicos

1. Todas las personas tienen derecho a la mejor atención disponible en materia de salud mental, que será parte del sistema de asistencia sanitaria y social.

2. Todas las personas que padezcan una enfermedad mental, o que estén siendo atendidas por esa causa, serán tratadas con humanidad y con respeto a la dignidad inherente de la persona

f) «Gaixo» dela ulertuko da laguntza psikologikoa hartzen duen pertsona; erakunde psikiatrikoan sartzen den pertsona orori dagokio;

g) «Pertsonaren ordezkari» gisa ulertuko da edozein arlo zehatzetan gaixoaren interesak ordezkatzeko edo gaixoaren izenean eskubide bereziak egikaritzeko eginbeharra, legeak zein pertsonari eman eta pertsona hori; berorrek barneratzen dituela adingabearen gurasoa edo legezko tutorea, nazio-legeriak bestelakoa ezartzen ez badu;

h) «Berrikuspen organo» gisa ulertuko da 17. printzipioaren arabera ezarritako organoa, berorrek berriz aztertu dezan gaixoa erakunde psikiatrikoan sartzea edo gaixoak nahi gabe bertan edukitzea.

Mugapenaren klausula orokorra

Printzipio hauetan aipatu eskubideak egikaritzea bakar-bakarrik legeak ezarritako mugapenen menpe geratzen da, mugapen horiek beharrezkoak badira kasuan kasuko pertsonaren edo pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko, edo jendearen segurtasuna, ordena, osasuna eta moralak publikoak edota hirugarrenen eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko.

1. printzipioa

Oinarrizko askatasunak eta funtsezko eskubideak

1. Pertsona guztiek dute eskubidea buruko osasunaren arloan, ahalik eta arretarik onena izateko, buruko osasuna osasun-laguntza eta gizarte-laguntza sistemaren arlo bat izango delarik.

2. Buruko gaixotasuna duten pertsona guztiak edo arrazoi horiek direla eta, laguntza duten pertsonak gizalegez eta gizakiari datxekion duintasuna errespetatuz tratatuko dira.

humana.

3. Todas las personas que padezcan una enfermedad mental, o que estén siendo atendidas por esa causa, tienen derecho a la protección contra la explotación económica, sexual o de otra índole, el maltrato físico o de otra índole y el trato degradante.

4. No habrá discriminación por motivo de enfermedad mental.

Por «discriminación» se entenderá cualquier distinción, exclusión o preferencia cuyo resultado sea impedir o menoscabar el disfrute de los derechos en pie de igualdad.

Las medidas especiales adoptadas con la única finalidad de proteger los derechos de las personas que padezcan una enfermedad mental o de garantizar su mejoría no serán consideradas discriminación.

La discriminación no incluye ninguna distinción, exclusión o preferencia adoptada de conformidad con las disposiciones de los presentes Principios que sea necesaria para proteger los derechos humanos de una persona que padezca una enfermedad mental o de otras personas.

5. Todas las personas que padezcan una enfermedad mental tendrán derecho a ejercer todos los derechos civiles, políticos, económicos, sociales y culturales reconocidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos, el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos y otros instrumentos pertinentes, tales como la Declaración de los Derechos de los Impedidos y el Conjunto de Principios para la protección de todas las personas sometidas a cualquier forma de detención o prisión.

3. Buruko gaixotasuna duten pertsona guztiek edo arrazoi horrengatik laguntza duten pertsonak eskubidea dute babesaren izateko esplotazio ekonomikoaren aurka, sexu-esplotazio edo bestelako esplotazioaren aurka, tratatu txarren edo bestelako tratuen aurka eta tratatu apalesgarriaren aurka.

4. Ezin da bereizkeriarik egin buruko gaixotasun-arrazoiengatik.

«Bereizkeria» gisa ulertuko da edozein bereizketa, baztertze edo lehenespen, horien emaitza bada eskubideen gozamina eragoztekoa edo gutxiestea, berdintasun baldintzetan.

Buruko gaixotasuna duten pertsonen eskubideak babesteko helburu bakarrarekin onetsitako neurri bereziak edo horien hobekuntza bermatzeko onetsitakoak ez dira bereizkeria gisa hartuko.

Bereizkeriak ez du barneratzen, printzipio hauen xedapenen arabera, inolako bereizketa, baztertze edo lehenespenik, halakoa premiazkoa bada buruko gaixotasuna duen pertsonaren edo beste pertsonen giza eskubideak babesteko .

5. Buruko gaixotasuna duten pertsona guztiek dute eskubidea eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta sozialak egikaritzeko, horiek aitortuta baitaude Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Ekonomia-, Gizarte-, eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunean, Eskubide zibil eta politikoaren Nazioarteko Itunean eta beste instrumentu egokietan, dela Ezinduen Eskubideen Adierazpenean, dela atxilotuta edo kartzelan dauden pertsonen babeserako Printzipioen multzoan.

6. Toda decisión de que, debido a su enfermedad mental, una persona carece de capacidad jurídica y toda decisión de que, a consecuencia de dicha incapacidad, se designe a un representante personal se tomará sólo después de una audiencia equitativa ante un tribunal independiente e imparcial establecido por la legislación nacional.

La persona de cuya capacidad se trate tendrá derecho a estar representada por un defensor.

Si la persona de cuya capacidad se trate no obtiene por sí misma dicha representación, se le pondrá ésta a su disposición sin cargo alguno en la medida de que no disponga de medios suficientes para pagar dichos servicios.

El defensor no podrá representar en las mismas actuaciones a una institución psiquiátrica ni a su personal, ni tampoco podrá representar a un familiar de la persona de cuya capacidad se trate, a menos que el tribunal compruebe que no existe ningún conflicto de intereses.

Las decisiones sobre la capacidad y la necesidad de un representante personal se revisarán en los intervalos razonables previstos en la legislación nacional.

La persona de cuya capacidad se trate, su representante personal, si lo hubiere, y cualquier otro interesado tendrán derecho a apelar esa decisión ante un tribunal superior.

7. Cuando una corte u otro tribunal competente determine que una persona que padece una enfermedad mental no puede ocuparse de sus propios asuntos, se adoptarán medidas, hasta donde sea necesario y apropiado a la condición de esa persona, para asegurar la protección de sus intereses.

6. Buruko gaixotasunagatik pertsona batek gaitasun juridikorik ez duela erabakitze eta ezgaitasun horren ondorioz ordezkari pertsonala izendatzea erabakitze, aurretiaz nazio-legeriak ezarritako auzitegi independente eta inpartzial baten aurrean ekitatearen araberako entzunaldia egin beharko da.

Zein pertsonaren gaitasunaz aritu eta pertsona horrek eskubidea izango du defendatzaile bat izateko, bera ordezkari dezan.

Zein pertsonaren gaitasunaz aritu eta pertsona horrek ez badu bere kabuz lortzen ordezkari, zerbitzu horiek ordaintzeko baliabide nahikorik ez duen neurrian, halakoa jarriko da bere esku, berarentzat kargurik gabe.

Defendatzaileak ezin izango ditu ordezkari jardura berberetan erakunde psikiatrikoa, ezta horko langileak ere, edota zein pertsonaren gaitasunaz aritu eta pertsona horren senidea ere, auzitegiak frogatu ezik ez dagoela inolako interes-gatazkarik.

Gaitasuna eta ordezkari pertsonalaren premiei buruzko erabakiak nazio-legeriak ezarritako bidezko epeetan berrikusiko dira.

Zein pertsonaren gaitasunaz aritu eta pertsona horrek, bere ordezkari pertsonalak, halakorik izanez gero, eta beste edozein interesdunek dute eskubidea erabaki hori goragoko auzitegi batera eramateko.

7. Gorteak edo beste auzitegi eskudunak zehazten dutenean buruko gaixotasuna duen pertsonak ezin duela bere arazoei aurre egin, beharrezko neurriak hartuko dira, pertsona horren egoerak behar duen heinean eta berarentzat egokia den heinean, bere interesen babesa bermatzeko.

Principio 2

Protección de menores

Se tendrá especial cuidado, conforme a los propósitos de los presentes Principios y en el marco de la ley nacional de protección de menores, en proteger los derechos de los menores, disponiéndose, de ser necesario, el nombramiento de un representante legal que no sea un miembro de la familia.

Principio 3

La vida en la comunidad

Toda persona que padezca una enfermedad mental tendrá derecho a vivir y a trabajar, en la medida de lo posible, en la comunidad.

Principio 4

Determinación de una enfermedad mental

1. La determinación de que una persona padece una enfermedad mental se formulará con arreglo a normas médicas aceptadas internacionalmente.
2. La determinación de una enfermedad mental no se efectuará nunca fundándose en la condición política, económica o social, en la afiliación a un grupo cultural, racial o religioso, o en cualquier otra razón que no se refiera directamente al estado de la salud mental.
3. Los conflictos familiares o profesionales o la falta de conformidad con los valores morales, sociales, culturales o políticos o con las creencias religiosas dominantes en la comunidad de una persona en ningún caso constituirán un factor determinante del diagnóstico de enfermedad mental.
4. El hecho de que un paciente tenga un historial de tratamientos o de hospitalización no bastará por sí solo para justificar en el presente o en el

2. printzipioa

Adingabeen babesia

Arreta berezia jarriko da, printzipio honen proposamenen arabera eta adingabeen babesaren nazio-legearen markoan, adingabeen eskubideak babesteko; horretarako, beharrezkoa bada, legezko ordezkaria izendatuko da, familiakoa ez dena.

3. printzipioa

Erkidegoan bizitzea

Buruko gaixotasuna duen pertsona orok du eskubidea erkidegoan bizitzeko eta, ahal den neurrian, bertan lan egiteko.

4. printzipioa

Buruko gaixotasuna zehaztea

1. Pertsona batek buruko gaixotasuna duela zehazteko nazioarte-mailan onartutako mediku-arauak aintzat hartuko dira.
2. Buruko gaixotasuna zehazteko ezin izango da inoiz ere oinarri hartu politika-, ekonomia- edo gizarte-baldintza, kultura-, arraza- edo erlijio-talde batera afiliatzea, edo beste edozein arrazoi, zuzenean zer ikusirik ez duena buruko osasunaren egoerarekin.
3. Familia edo lanbideen arteko gatazkak edo pertsonaren erkidegoan gailendutako balio moral, sozial, kultural edo politikoekin edota erlijio-sinesmenarekin bat ez etortzeak ezin dute, inola ere, faktore erabakigarria izan buruko gaixotasuna diagnostikatzeko.
4. Gaixo batek ondoz ondoko tratamendu edo ospitaleratze zerranda bat izatea, berez ez da izango nahikoa, oraingoan zein etorkizunean, buruko

porvenir la determinación de una enfermedad mental.

5. Ninguna persona o autoridad clasificará a una persona como enferma mental o indicará de otro modo que padece una enfermedad mental salvo para fines directamente relacionados con la enfermedad mental o con las consecuencias de ésta.

Principio 5

Examen médico

Ninguna persona será forzada a someterse a examen médico con objeto de determinar si padece o no una enfermedad mental, a no ser que el examen se practique con arreglo a un procedimiento autorizado por el derecho nacional.

Principio 6

Confidencialidad

Se respetará el derecho que tienen todas las personas a las cuales son aplicables los presentes Principios a que se trate confidencialmente la información que les concierne.

Principio 7

Importancia de la comunidad y de la cultura

1. Todo paciente tendrá derecho a ser tratado y atendido, en la medida de lo posible, en la comunidad en la que vive.
2. Cuando el tratamiento se administre en una institución psiquiátrica, el paciente tendrá derecho a ser tratado, siempre que sea posible, cerca de su hogar o del hogar de sus familiares o amigos y tendrá derecho a regresar a la comunidad lo antes posible.
3. Todo paciente tendrá derecho a un tratamiento adecuado a sus antecedentes culturales.

Principio 8

Normas de la atención

gaixotasuna duela baieztatzeko.

5. Inork, norbanako nahiz agintari, ezin izango du pertsona bat buruko gaixotasuna duen pertsona gisa sailkatu, ezta beste modu batean adierazi ere, pertsona horrek buruko gaixotasuna duenik, salbu eta buruko gaixotasunarekin edo horren ondorioekin zuzenean zer ikusia duten helburuetarako denean.

5. printzipioa

Mediku-azterketa

Inor ezin izango da behartu mediku-azterketa bat egitera, buruko gaixotasuna duen ala ez zehazteko helburuarekin, ez bada azterketa hori egiten nazio-zuzenbideak baimendutako prozedura baten arabera.

6. printzipioa

Isil-gordea

Printzipio hauek nori aplikatu eta pertsona horiek, eurei dagokien informazioa, isilean gordetzeko duten eskubidea errespetatuko da.

7. printzipioa

Erkidegoaren eta kulturaren garrantzia

1. Gaixo orok du eskubidea, ahal den neurrian, bizi den erkidegoan tratatua eta artatua izateko.
2. Tratamendua erakunde psikiatrikoan egiten denean, gaixoak eskubidea du, ahal den neurrian, etxetik hurbil edo familiaren edo lagunen etxetik hurbil tratatua izateko, eta, oro har, eskubidea izango du ahalik eta lasterren erkidegora itzultzeko.
3. Gaixo orok du eskubidea bere aurrekari kulturei egokitzen zaien tratamendua izateko.

8. printzipioa

Arreta-arauak

1. Todo paciente tendrá derecho a recibir la atención sanitaria y social que corresponda a sus necesidades de salud y será atendido y tratado con arreglo a las mismas normas aplicables a los demás enfermos.

2. Se protegerá a todo paciente de cualesquiera daños, incluidos la administración injustificada de medicamentos, los malos tratos por parte de otros pacientes, del personal o de otras personas u otros actos que causen ansiedad mental o molestias físicas.

Principio 9

Tratamiento

1. Todo paciente tendrá derecho a ser tratado en un ambiente lo menos restrictivo posible y a recibir el tratamiento menos restrictivo y alterador posible que corresponda a sus necesidades de salud y a la necesidad de proteger la seguridad física de terceros.

2. El tratamiento y los cuidados de cada paciente se basarán en un plan prescrito individualmente, examinado con el paciente, revisado periódicamente, modificado llegado el caso y aplicado por personal profesional calificado.

3. La atención psiquiátrica se dispensará siempre con arreglo a las normas de ética pertinentes de los profesionales de salud mental, en particular normas aceptadas internacionalmente como los Principios de ética médica aplicables a la función del personal de salud, especialmente los médicos, en la protección de personas presas y detenidas contra la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes, aprobados por la Asamblea General de las Naciones Unidas.

En ningún caso se hará uso indebido de

1. Gaixo orok du eskubidea bere osasunaren beharrizanei dagokien osasun- eta gizarte-arreta izateko, eta gainerako gaixoei aplikatzen zaizkien arau berberen arabera tratatua izateko.

2. Gaixo orori babes emango zaio edozein kalteren aurrean, barne hartuta medikamentuak bidegabe ematea, beste gaixoen aldetik, langileen aldetik edo beste pertsonen aldetik tratatu txarrak pairatzea edota beste egintza batzuk, horiek buruko estutasuna edo ondoeza eragiten badute.

9. printzipioa

Tratamendua

1. Gaixo orok du eskubidea murrizketa gutxien ezartzen dituen giro batean tratatua izateko eta ahalik eta murrizketa eta aldaketa gutxien duen tratamendua jasotzeko, bere osasun-beharrizanei dagokiena eta hirugarrenen segurtasun fisikoa babesten duena.

2. Gaixo bakoitzaren tratamendua eta zainketak, banan-banan agindutako plangintzan oinarrituko dira, eta plangintza hori gaixoarekin aztertuko da, aldian-aldian berrikusi eta unea heltzen denean ere, aldatu eta lanbide aditu batek aplikatuko du.

3. Laguntza psikiatrikoa beti emango da buruko osasunaren inguruko profesionalen arau etiko egokien arabera, batik bat, nazioarteko mailan onarturiko etika medikoaren printzipioen arabera, printzipio horiek aplikatzen zaizkiela osasun-langileei eta, bereziki, medikuen eginkizunari, presoak eta atxilotuak babesteko, Nazio Batuen Biltzar Orokorra onetsitako torturaren eta tratatu txarren edo zigor krudelen, gizabidezko ez direnen edo apalesgarrien aurka.

Psikiatria-ezaguerak eta -teknikak ezin

los conocimientos y las técnicas psiquiátricos.

4. El tratamiento de cada paciente estará destinado a preservar y estimular su independencia personal.

Principio 10

Medicación

1. La medicación responderá a las necesidades fundamentales de salud del paciente y sólo se le administrará con fines terapéuticos o de diagnóstico y nunca como castigo o para conveniencia de terceros.

Con sujeción a las disposiciones del párrafo 15 del principio 11 infra, los profesionales de salud mental sólo administrarán medicamentos de eficacia conocida o demostrada.

2. Toda la medicación deberá ser prescrita por un profesional de salud mental autorizado por la ley y se registrará en el historial del paciente.

Principio 11

Consentimiento para el tratamiento

1. No se administrará ningún tratamiento a un paciente sin su consentimiento informado, salvo en los casos previstos en los párrafos 6, 7, 8, 13 y 15 del presente principio.

2. Por consentimiento informado se entiende el consentimiento obtenido libremente sin amenazas ni persuasión indebida, después de proporcionar al paciente información adecuada y comprensible, en una forma y en un lenguaje que éste entienda, acerca de:

- a) El diagnóstico y su evaluación;
- b) El propósito, el método, la duración probable y los beneficios que se espera obtener del tratamiento propuesto;
- c) Las demás modalidades posibles de tratamiento, incluidas las menos alteradoras posibles;

izango dira, inola ere, bidegabe erabili.

4. Gaixo bakoitzaren tratamendua bere burujabetasuna babestera eta suspertzera bideratuko da.

10. printzipioa

Medikazioa

1. Medikazioak gaixoaren osasunaren oinarrizko beharrianak beteko ditu eta bakar-bakarrik helburu terapeutikoekin edo diagnostikoa egiteko emango da, eta inoiz ere ez, zigor bezala edo hirugarrenen komenigarritasunerako.

11. infra printzipioaren 15. paragrafoaren xedapenekin bat etorritik, buruko osasuneko profesionalak bakar-bakarrik emango dituzte zein medikamenturen eragingarritasuna ezagutu eta frogatu, eta horiek.

2. Medikazio oro buruko osasuneko profesionalak, legez baimenduta dagoenak aginduko du, eta medikazioa gaixoaren historian erregistratuko da.

11. printzipioa

Tratamendua egiteko adostasuna

1. Gaixoari ezin izango zaio inolako tratamendurik egin, berak jakitun izanik eta horretarako emandako adostasuna lortu gabe, salbu printzipio honen 6, 7, 8, 13 eta 15. paragrafoetan aurreikusitako kasuetan.

2. Jakitun izanik emandako adostasuna da askatasunez, mehatxu gabe eta modu makurrean konbentzitu gabe lortutako adostasuna, gaixoari informazio egokia eta ulergarria eman ondoren, berak ulertzeko modu eta hizkuntza batez, hurrengoari buruz:

- a) Diagnostikoa eta horren ebaluazioa;
- b) Proposatutako tratamenduaren helburua, metodoa, izan dezakeen iraupena eta lortu nahi diren onurak;
- c) Osterantzeko tratamendu-modalitateak, ahalik eta aldaketa gutxien eragiten dituztenak barne:

d) Los dolores o incomodidades posibles y los riesgos y secuelas del tratamiento propuesto.

3. El paciente podrá solicitar que durante el procedimiento seguido para que dé su consentimiento estén presentes una o más personas de su elección.

4. El paciente tiene derecho a negarse a recibir tratamiento o a interrumpirlo, salvo en los casos previstos en los párrafos 6, 7, 8, 13 y 15 del presente principio.

Se deberán explicar al paciente las consecuencias de su decisión de no recibir o interrumpir un tratamiento.

5. No se deberá alentar o persuadir a un paciente a que renuncie a su derecho a dar su consentimiento informado.

En caso de que el paciente así desee hacerlo, se le explicará que el tratamiento no se puede administrar sin su consentimiento informado.

6. Con excepción de lo dispuesto en los párrafos 7, 8, 12, 13, 14 y 15 del presente principio, podrá aplicarse un plan de tratamiento propuesto sin el consentimiento informado del paciente cuando concurren las siguientes circunstancias:

- a) Que el paciente, en la época de que se trate, sea un paciente involuntario;
- b) Que una autoridad independiente que disponga de toda la información pertinente, incluida la información especificada en el párrafo 2 del presente principio, compruebe que, en la época de que se trate, el paciente está incapacitado para dar o negar su consentimiento informado al plan de tratamiento propuesto o, si así lo prevé la legislación nacional, teniendo presentes la seguridad del paciente y la de terceros, que el paciente se niega irracionalmente a dar su

d) Proposatutako tratamenduak eragin ditzakeen minak eta eragozpenak, arriskuak eta ondorioak.

3. Gaixoak eska dezake adostasuna emateko jarraitutako prozeduraren bitartean, berak aukeratutako pertsona bat edo gehiago bertan egotea.

4. Gaixoak eskubidea du tratamendua egiteari uko egiteko edo tratamendua eteteko, salbu printzipio honen 6, 7, 8, 13 eta 15. paragrafoetan aurreikusitako kasuetan.

Gaixoari adierazi egin beharko zaio tratamendua ez egiteko edo eteteko erabakiak dituen ondorioak.

5. Ez da gaixorik bultzatu edo konbentzitu behar, aurretiaz jakitun izanik eman duen adostasuna adierazteko eskubideari uko egiteko.

Gaixoak halakoa egitea nahi duen kasuan, adieraziko zaio tratamendua ezin dela egin jakitun izanik berak emandako adostasunik gabe.

6. Printzipio honen 7, 8, 12, 13, 14 eta 15. paragrafoetan xedatutakoa salbu, proposatutako tratamenduaren plangintza bat aplikatu ahal izango da gaixoa jakitun izanik emandako adostasunik gabe, ondorengo inguruabarretan:

- a) Gaixoa noiz tratatu eta garai horretan nahi gabeko gaixoa denean;
- b) Informazio egoki guztia duen agintari independenteak, printzipio honen 2. paragrafoan zehaztutako informazioa barne, egiaztatzen duenean, gaixoa noiz tratatu eta garai horretan gaixoa ez dela gai proposatutako tratamenduaren plangintzari jakitun izanik adierazitako adostasuna emateko edo horri uko egiteko edo, nazio-legeriak halakoa aurreikusten duenean, aintzat hartuta gaixoaren eta hirugarrenen segurtasuna, gaixoak adostasuna emateari arrazoirik gabeko modu batez

consentimiento;

c) Que la autoridad independiente compruebe que el plan de tratamiento propuesto es el más indicado para atender a las necesidades de salud del paciente.

7. La disposición del párrafo 6 supra no se aplicará cuando el paciente tenga un representante personal facultado por ley para dar su consentimiento respecto del tratamiento del paciente; no obstante, salvo en los casos previstos en los párrafos 12, 13, 14 y 15 del presente principio, se podrá aplicar un tratamiento a este paciente sin su consentimiento informado cuando, después que se le haya proporcionado la información mencionada en el párrafo 2 del presente principio, el representante personal dé su consentimiento en nombre del paciente.

8. Salvo lo dispuesto en los párrafos 12, 13, 14 y 15 del presente principio, también se podrá aplicar un tratamiento a cualquier paciente sin su consentimiento informado si un profesional de salud mental calificado y autorizado por ley determina que ese tratamiento es urgente y necesario para impedir un daño inmediato o inminente al paciente o a otras personas.

Ese tratamiento no se aplicará más allá del período estrictamente necesario para alcanzar ese propósito.

9. Cuando se haya autorizado cualquier tratamiento sin el consentimiento informado del paciente, se hará no obstante todo lo posible por informar a éste acerca de la naturaleza del tratamiento y de cualquier otro tratamiento posible y por lograr que el paciente participe en cuanto sea posible en la aplicación del plan de tratamiento.

10. Todo tratamiento deberá registrarse

uko egin diola.

c) Agintari independenteak egiaztatzen duenean, proposatutako tratamenduaren plangintza dela egokiena gaixoaren osasun-beharrizanak artatzeko.

7. 6. supra paragrafoaren xedapena ez da aplikatuko gaixoak legez ahalmendutako ordezkari pertsonala duenean, gaixoaren tratamenduari dagokion adostasuna emateko; nolahi ere, printzipio honen 12, 13, 14 eta 15. paragrafoetan aurreikusitako kasuak salbu, gaixo horri tratamendua aplikatu ahal izango zaio jakitun izanik emandako adostasunik gabe, bakar-bakarrik, printzipio honen 2. paragrafoan aipatu informazioa eman ondoren, ordezkari pertsonalak, gaixoaren izenean, adostasuna eman duenean.

8. Printzipio honen 12, 13, 14 eta 15. paragrafoetan xedatutako salbu, edozein gaixori aplikatu ahal izango zaio tratamendu bat, jakitun izanik emandako adostasunik gabe, buruko osasuneko profesional adituak, legez baimendutakoak, zehazten duenean tratamendu hori presazkoa eta beharrezkoa dela, gaixoari edo hirugarrenei gertuko edo berehalako kalte egitea eragozteko.

Tratamendu hori ezin izango da aplikatu helburua lortzeko behar-beharrezkoa den epea baino gehiago.

9. Edozein tratamendu egitea baimentzen denean, gaixoa jakitun izanik emandako adostasunik gabe, ahal den guztia egingo da gaixoari jakinarazteko tratamenduaren izaera zein den eta egon daitezkeen beste tratamenduen berri emateko, eta baita lortzeko ere, gaixoak parte har dezala, ahal denean, tratamenduaren plangintzaren aplikazioan.

10. Tratamendu oro berehala

de inmediato en el historial clínico del paciente y se señalará si es voluntario o involuntario.

11. No se someterá a ningún paciente a restricciones físicas o a reclusión involuntaria salvo con arreglo a los procedimientos oficialmente aprobados de la institución psiquiátrica y sólo cuando sea el único medio disponible para impedir un daño inmediato o inminente al paciente o a terceros.

Esas prácticas no se prolongarán más allá del período estrictamente necesario para alcanzar ese propósito.

Todos los casos de restricción física o de reclusión involuntaria, sus motivos y su carácter y duración se registrarán en el historial clínico del paciente.

Un paciente sometido a restricción o reclusión será mantenido en condiciones dignas y bajo el cuidado y la supervisión inmediata y regular de personal calificado.

Se dará pronto aviso de toda restricción física o reclusión involuntaria de pacientes a los representantes personales, de haberlos y de proceder.

12. Nunca podrá aplicarse la esterilización como tratamiento de la enfermedad mental.

13. La persona que padece una enfermedad mental podrá ser sometida a un procedimiento médico u operación quirúrgica importantes únicamente cuando lo autorice la legislación nacional, cuando se considere que ello es lo que más conviene a las necesidades de salud del paciente y cuando el paciente dé su consentimiento informado, salvo que, cuando no esté en condiciones de dar ese consentimiento, sólo se autorizará el procedimiento o la operación

erregistratuko da gaixoaren historia klinikoa eta bertan adieraziko da hori borondatezkoa ala nahi gabekoa izan den.

11. Gaixoa ez da geratuko murrizketa fisikoen menpe, ezta nahi gabeko giltzapean, erakunde psikiatrikoak modu ofizialean onartuko prozeduren arabera izan ezik, eta soil-soilik hori denean bide bakarra gaixoari edo hirugarrenei gertuko edo berehalako kalte egitea eragozteko.

Eginera horiek ezin izango dira luzatu helburua lortzeko behar-beharrezkoa den epea baino gehiago.

Murrizketa fisiko edo nahi gabeko giltzapetze kasu ororen arrazoiak, izaera eta iraupena gaixoaren historia klinikoa erregistratuko dira.

Murrizketaren menpe edo giltzapean dagoen gaixoa baldintza duinetan zainduko da, langile adituen zaintzapean eta berehalako eta erregulartasunez egindako ikuskaritzapean.

Gaixoen murrizketa fisiko edo nahi gabeko giltzapetze ororen berri, berehala emango zaie pertsonaren ordezkariari, halakoak badira eta hori egitea bidezkoa bada.

12. Ezin izango da inoiz ere esterilizazioa erabili buruko gaixotasunaren tratamendu gisa.

13. Buruko gaixotasuna duen pertsona bati bakar-bakarrik egin ahal izango zaizkio mediku-prozedura edo ebakuntza kirurgiko garrantzitsuak, nazio-legeriak halakoak baimentzen dituenean, uste bada hori dela egokiena gaixoaren osasun-beharrizantzat eta gaixoak horretarako jakitun izanik adierazitako adostasuna ematen badu, salbu eta adostasun hori emateko gai ez denean, orduan prozedura edo ebakuntza soilik baimenduko baita aparteko azterketa

después de practicarse un examen independiente.

14. No se someterá nunca a tratamientos psicoquirúrgicos u otros tratamientos irreversibles o que modifican la integridad de la persona a pacientes involuntarios de una institución psiquiátrica y esos tratamientos sólo podrán, en la medida en que la legislación nacional lo permita, aplicarse a cualquier otro paciente cuando éste haya dado su consentimiento informado y cuando un órgano externo independiente compruebe que existe realmente un consentimiento informado y que el tratamiento es el más conveniente para las necesidades de salud del paciente.

15. No se someterá a ensayos clínicos ni a tratamientos experimentales a ningún paciente sin su consentimiento informado, excepto cuando el paciente esté incapacitado para dar su consentimiento informado, en cuyo caso sólo podrá ser sometido a un ensayo clínico o a un tratamiento experimental con la aprobación de un órgano de revisión competente e independiente que haya sido establecido específicamente con este propósito.

16. En los casos especificados en los párrafos 6, 7, 8, 13, 14 y 15 del presente principio, el paciente o su representante personal, o cualquier persona interesada, tendrán derecho a apelar ante un órgano judicial u otro órgano independiente en relación con cualquier tratamiento que haya recibido.

Principio 12

Información sobre los derechos

1. Todo paciente recluido en una institución psiquiátrica será informado, lo más pronto posible después de la admisión y en una forma y en un lenguaje que comprenda, de todos los

egin ondoren.

14. Erakunde psikiatriko baten nahi gabeko gaixoei ezin izango zaie tratamendu psikokirurgikorik edo euren duintasuna aldatu dezakeen atzeraezinezko beste tratamendurik egin. Izan ere, tratamendu horiek, nazio-legeriak onartzen dituen heinean, beste edozein gaixori aplikatu ahal zaizkio, horretarako jakitun izanik adierazitako adostasuna eman badu edo kanpoko organo independente batek ziurtatzen badu adostasun hori badagoela eta tratamendua egokiena dela gaixoaren osasun-beharrizanentzat.

